Lan-eskaintzen erregistroa 2021eko urtarrilean

ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2021eko urtarrilean Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopurua 883 izan da, abenduan baino 247 gehiago eta joan den urteko urtarrilean baino 459 gutxiago. Egunean bataz bestez 43 eskaintza erregistratu dira, aurreko hilean baino 12 eskaintza gehiago egunean. Hilabete honetako datuak ezin dira ulertu Covid-19ak sortutako pandemia kontuan izan gabe.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen (KAU) lurralde historikoari erreparatuz, 2021eko urtarrilean 105 lan-eskaintza erregistratu dira Araban, 432 Gipuzkoan eta 296 Bizkaian. Lan-eskaintzen % 51,9 Gipuzkoako KAUetan erregistratu dira, % 35,5 Bizkaian eta % 12,6 Araban.

Eskaintzaren Lurralde Historikoa



Aurreko hilabetearekin alderatuz, Araban % 7,1 hazi dira eskaintzak (7 eskaintza gehiago), Bizkaian hazkundea %5ekoa izan da (14 eskaintza gehiago) eta, azkenik, Gipuzkoako bilakaera izan da aipagarriena ,% 109,7ko hazkundea izan baitu (226 eskaintza gehiago).

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, lurralde guztietan murriztu dira eskaintzak. Araban 73 eskaintza gutxiago erregistratu dira, % 41eko murrizketa; Gipuzkoan 157 eskaintza gutxiago jaso dira, % 26,7ko murrizketa, eta azkenik, Bizkaian 229 eskaintza gehiago izan dira, % 43,6ko murrizketa.

• LAN-ESKAINTZAKO LANBIDEA

Bost lanbide-profilek biltzen dituzte EAEn erregistratutako lan-eskaintza gehienak. %20,8a, ez kualifikatuen lanbide-profilerako erregistratu dira (173 eskaintza); eta, %16a, laguntzako teknikarien profilerako (134 eskaintza). Industria, zientzia teknikari eta zerbitzuen profilen lan eskaintzek, ere, pisu nabarmena dute; 128, 125 eta 99 eskaintza erregistratu dira, hurrenez- hurren. Lan-eskaintza gutxien erregistratu diren profilak, zuzendariak eta lehen sektorekoak izan dira, 7 eta 26 eskaintza, hurrenez hurren.

Aurreko hilabeteko datuekin alderatuz, profil guztietako eskaintzak hazi dira, zientzietako teknikarien profila izan ezik; hauen kasuan, eskaintza berdin mantendu da (125 eskaintza). Balore absolutuetan, gehien hazi den profila ez kualifikatuena izan da (57 eskaintza gehiago, % 49,1eko hazkundea); balore erlatiboetan, aldiz, lehen sektorea izan da, % 550eko hazkundea (22 eskaintza gehiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz, eskaintzak profil guztietan murriztu dira. Bai balore absolutu, zein balore erlatiboetan, zerbitzuen profileko eskaintzak izan dira gehien murriztu direnak (157 eskaintza gutxiago, % 61,3ko murrizketa).

• KONTRATU MOTA

Erregistratutako lan-eskaintzen % 8,6k kontratu mugagabea eskaini dute; % 90,2k, aldi baterakoa, eta, gainontzeko % 1,2k, merkataritzakoa. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 72 izan dira, 23 gehiago aurreko hilabetearekin alderatuz, %46,9ko hazkundea. Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten 217 eskaintza gehiago erregistratu dira: 751 eskaintza izan dira guztira. Kopuru erlatiboetan murrizketa % 40,6koa izan da. Azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintzak 2021eko urtarrilean 10 izan dira, aurreko hilean baino 7 gehiago.

Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 112 gutxiago izan dira (% 46,9ko murrizketa), aldi baterako kontratuen eskaintzak % 31,6 murriztu dira; 217 eskaintza gutxiago, eta, merkataritzako kontratuak, aldiz, berdin geratu dira (10 eskaintza).

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

2021eko urtarrilean erregistratutako lan-eskaintzen 3 laurdenek (628 eskaintza, %75,4) 0tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen % 12,4k (103 eskaintza) esperientzia-denbora luzeagoa eskatzen du, 6 hiletik 12ra artekoa. Portzentaia txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek % 2ko pisua dute (17 eskaintza) eta 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenen pisua %0,5ekoa da (4 eskaintza).



Hilabete arteko eboluzioari dagokionez, eskaintza guztiak hazi dira. Gehien hazi direnak, balio absolutuetan, 6 hilabete baino gutxiagoko eskaintzak izan dira (185 eskaintza gehiago, % 41,8ko hazkundea); aldiz, balio erlatiboetan, 3 eta 5 urte tarteko esperientzia denbora eskatzen dutenak izan dira (% 70eko hazkundea, 7 eskaintza gehiago.

Urte arteko eboluzioari dagokionez, bilakaera ondorengoa izan da: 6 hilabete arteko esperientzia denbora eskatzen dutenak izan dira beherakada haundiena jasan dutenak balio absolutuetan (298 eskaintza gutxiago, %32,2ko beherakada). Aldi berean, balio erlatiboetan, 6 eta 12 hilabete arteko esperientzia dutenak izan dira gehien murriztu direnak (%48,8ko jaitsiera, 98 eskaintza gutxiago).

Erregistratutako eskaintzek, batez beste, 8 hileko esperientzia eskatzen dute, aurreko hilean bezala.

• LANALDI MOTA

Analisiarekin jarraitu baino lehen, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik eskaintzen % 8,2k zehazten du datu hori (833 eskaintzetatik 68). 68 eskaintza horietatik, 58 lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 10k, lanaldi partziala eskaini dute.



Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 3 gehiago izan dira abenduarekin alderatuz, hau da, % 5,5 hazi dira. Lanaldi partzialeko eskaintzak 9 gutxiago izan dira; beherakada erlatiboa % 47,4koa izan da.

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, eboluzioa hurrengoa da: lanaldi osoko eskaintzak 98 gutxiago izan dira (% 62,8ko murrizketa), eta lanaldi partzialeko kasuan, 32 eskaintzatakoa izan da beherakada (% 76,2ko murrizketa).

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hil honetan 9 lan eskaintza kudeatu dira ABLEn bitartez, aurreko hilean baino 3 eskaintza gutxiago, eta 2020ko urtarrilean baino 9 gutxiago.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 85,5ek ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 833 eskaintzetatik 121ek soilik zehaztu dute.

121 eskaintza horietatik, 50ek LHko prestakuntza maila eskatu dute (% 41,3); eta beste 37k unibertsitateko ikasketak (%30,6). Ondoren, oinarrizko ikasketak eskatzen dituztenak daude 27 eskaintzekin (% 22,3). Azkenik, batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude (7 eskaintza, % 5,7).

Hilabete arteko erlazioari erreparatuz, eskaintza guztiak hazi dira unibertsitateko ikasketak izan ezik (3 eskaintzatan jaitsi dira). Balio absolutuetan, derrigorrezko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira gehien hazi direnak (4 eskaintza gehiago, % 17,4ko hazkundea). Aldiz, balio erlatiboetan, batxilergoko prestakuntza maila eskatzen dutenak izan dira gehien hazi direnak (% 75eko hazkundea, 3 eskaintza gehiago).

2020ko urtarrilarekin alderatuz, gehien murriztu diren eskaintzak LHko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira balio absolutuetan (25 eskaintza gutxiago, % 33,3ko murrizketa).Balio erlatiboetan, aldiz, batxilergoko prestakuntza maila eskatzen duten eskaintzak izan dira gehien murriztu direnak (6 eskaintza gutxiago, % 46,2ko beherakada).

• ESKAINTZAREN JARDUERA

Lan-eskaintzen erregistroa 2021eko urtarrilean

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen dena osasun jarduerak izan dira; honen pisua eskaintza guztien % 18,1ekoa izan da (151 eskaintza). Nabarmentzeko beste jarduera batzuk, jarduera administratiboak, manufaktura-industriak eta merkataritza izan dira, eskaintzen % 17,3, % 14 eta % 11,2ko pisuarekin (144, 117 eta 93 lan-eskaintza, hurrenez hurren).

Aurreko hilari erreparatuz eskaintza gehienak hazi dira. Gehien hazi direnak, jarduera administratiboak izan dira (98 eskaintza gehiago, % 213ko hazkundea). Aldiz, murrizketa handiena izan dutenak, administrazio publikokoak izan dira (115 eskaintza gutxiago, % 90,5eko murrizketa).

Urte arteko saldoari erreparatuz, ia eskaintza guztiak jaitsi dira. Bilakaera okerrena pairatu duten eskaintzak ostalaritzakoak izan dira (% 87,6ko murrizketa, 92 eskaintza gutxiago). Gehien hazi diren eskaintzak, osasuna eta ur hornikuntza izan dira; 9 eskaintza gehiago erregistratu dira jarduera bakoitzean.